

**INFORMAZIO-ZIRKULARRA:****EAEKO JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ARRISKU
PSIKOSOZIALAK EBALUATZEKO LANTALDEA**

EAEko Justizia Administrazioako arrisku psikosozialak ebaluatzeko prozesuaren barruan aldez aurretik prestaketa-lana egin ondoren, 2024ko martxoaren 4an datuak hartzen hasi zen, prestakuntza-jardunaldien bidez, eta, horiek egin ondoren, galdetegiak betetzearen bitartez. 2024ko irailaren 30ean amaitu ziren lan horiek. Jauregiko langile gehienek parte hartu dute, eta parte-hartzearen emaitzak oso onak izan dira; horregatik, Lantalde honek eskerrak eman nahi dizkizue.

Lortu diren datuak aztertzeko azken fasean gaude. Azken fase horrek atariko txosteneko informazioaren azterketan sakontzen du Prebentzio Zirkuluak direlakoen bidez, hau da, ebaluazioaren xede diren langileei taldeko kontsultak egiteko guneen bidez, zuen parte-hartzea beharrezkoa delako lortutako emaitzak behar bezala interpretatzeko. Zirkulu bakoitzaren helburua da lantokian faktore psikosozialekiko esposizio kaltegarrien jatorrian sakontzea eta horiek murrizteko edo ezabatzeko prebentzio-neurriak proposatzea, betiere lantoki osasungarriagoa lortzeko.

Laster zuengana joko dugu zirkuluak eratzeko laguntza eskatzeko, orain arte Lantaldean aztertutakoaren arabera komenigarria iruditu zaigulako hainbat zirkulutan lan egitea. Zirkuluek honako ezaugarri hauek dituzte:

- Boluntarioez eta Lantaldeko kideez osatuta egongo dira.
- Lan-orduetan egingo dituzte bilerak, lantokian bertan.
- Jorratutako edukiak isilpekoak izango dira, eta lortutako informazioa soilik erabili ahal izango da prebentzio-xedeetarako. Eduki horiek laburpen-txosten batean jasoko dira, baina parte-hartzaileen izenik eman gabe.

Lantaldeak parte hartzera animatzen zaituzte: zuen ekarpenak baliagarrienak dira, zuek ezagutzen dituzuelako inork baino hobeto zuen lan-baldintzak.